

2- Merkatuaren segmentazioa:

Nitxo osatutako merkatua aukeratu dugu. Euskal Herriko umeengan bideratuta egongo da, 4-18 urtekoak zehazki. Talde hau aukeratu dugu kirola eta osasun mentalari izugarrizko garrantzia ematen dietelako. Bi xede bezeroak ditugu;

1. 4-18 urte bitarteko haurren gurasoak

⇒ Kirola eta osasun mentala sustatzen dituen esperientziak bilatzen dutenak, haien seme-alaben garapena handitzeko. 4-18 urte bitarteko haurren gurasoak aukeratu ditugu segmentu gisa, adin-tarte hau funtsezkoa delako haurren garapen fisiko, mental eta sozialerako. Kirolaren eta osasun mentalaren arteko lotura gero eta gehiago baloratzen dute, eta merkatuan oraindik ez dago bi alderdi horiek eskaintzen dituzten jarduera espezializatuetan. Gure kampamendua bi aukeren juntadura eskaintzen du, familia hauei izugarrizko esperientziak eskainiz seme-alaben garapenean eragin positiboa izateko.

2. 4-18 urte bitarteko haurrak eta gazteak

⇒ Kirola gustuko dutenak edo ingurune osasuntsu batean dibertitu eta ongizate emozionala hobetu nahi dutenak segmentu gisa aukeratu dugu, interes handiko eta hazkunde potentzial handia duen talde delako lehen azaldu dudana bezala. Bizimodu osasuntsua bilatzen dute. Gainera, merkatuan kampamenduen eskaintza gero eta handiagoa izanik, segmentu honek produktu eta zerbitzu berriak garatzeko aukera ematen du.